

III – ERANSKINA

TRANTSIZIO EKOLOGIKO JASANGARRIA ETA BIDEZKOA GAITASUNAK

Balorazio irizpideak aplikatzeko kontuan hartuko diren alderdiak

OHARRAK

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskaera –proiektuaren memorian joratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da, aurkeztutako proiektuaren dimentsio osoa behar bezala ulertzeko informazio nahikoa jasoko duena

Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.

Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “**Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programa**” arautzen duen 2022ko azaroaren 15ean Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren III. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Pertsona hartzaileak
- Orain artean garatutako jardurekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Aplikazio eremua

Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten entitateen deskribapena
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta bitarteko materialak.

Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Izaera eraldatzailea: proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Trantsizio ekologiko jasagarria eta bidezkoa lortzeko ekarpena
- Bizitza osoan zeharreko (eta zabalean) erronkak lortzeko ekarpena
- GJH-k (Garapen jasagarriaren helburuak) lortzeko ekarpena

- Parte hartuko duten edo/eta hartzaile izango diren pertsonen azalpena (pertsonea kopurua,...)
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak; barruko nahiz kanpoko elkarlana; arloen arteko elkarlana; garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak; sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea; informazio eta kontsulta prozesua; lankidetzan aritzeko bitartekoak;.....).
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean

- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Garatuko den jarduketaren iraunkortasuna

Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana

Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak